

## Lotsaren laguntzak 2?

Duela 48 ordu Iñigo Urkullu lehendakariak 30 milioi euroko partida berri bat iragarri du enpresa txiki eta ertainentzat eta euskal autonomoentzat. **Beldurra ematen du 30 milioi euroko banaketa soila egiteak norberaren konturako langileen kolektiboa osatzen duten 171.000 pertsonen artean.** Banaketa egiteko gogorik ez dutenentzat, **bakoitzari 175,43 euro tokatzen zaigula esaten diegu. Kopuru onargarria al da hori?** Neurri horiek iritzi publikoari begira eginak badira agian izango dute eraginik, baina laguntza horiekin benetan kolektiboaren egoera arindu nahi bada, orduan ez daude batere ondo bideratuta.

**AEE-AUPA Euskadin, lehen minututik ari gara benetako laguntzak eskatzen:**

**Lege bidez lokalen alokairuen ordainketa baliogabetzea, eta jabeak izatea zenbateko hori administrazio publikoaren aurrean erreklamatzeko dutenak, behar izanez gero, eta administrazioak ordaintzea zenbateko hori.**

**Autonomoen kuotei dagokienez, Alarma Egoerak irauten duen hilabeteetan barkatzea, eta horrek martxoan kobratutakoa sartzen du, alde batera utzita otsailari dagokion edo ez; eta negozioaren jarduerari berriro ekiten zaionean, ordaintzeko erraztasunak jartzea.**

**Iragarpen berri horren aurrean, uste baitugu ez dela ez errealista ez proportzionala, gutxieneko batzuk betetzea eskatzen dugu:**

**Enpresa Txiki eta Ertainentzako eta autonomoentzako partidak bereiztea.** Ez dugu berdin ordaintzen eta ez dugu berdin irabazten; beraz, gure ustez, oso logikoa da laguntzak desberdinak izatea, kolektibo bakoitzaren beharrak hobeto betetzeko.

Langile autonomo askoren egoera premia larrikoa denez, zorrak ordaintzearen edo familiari jaten ematearen artean aukeratu behar izaten ari direlarik, **administrazio publikoei zorretan daudenen kasuak azter ditzatela eskatzen diegu, eta ez ditzatela baztertu okerren pasatzen ari**

**diren pertsonak.** Badakigu askotan ez dela ez ordaindu nahi izatea, ezin dela ordaindu baizik.

Beharrian hori kontuan hartuta, **laguntzak bateragarriak eta ez-baztertzailak izan daitezela eskatzen dugu, eta, gainera, malguak izan daitezela, euskal langile autonomo gehienengana irits daitezela.**

Onartezina da, lehen deialdi lotsagarriarekin gertatu den bezala, ezin sartu izatea SL bat duten pertsonak, baliabide informatikorik ez dutenak edo nola erabili ez dakitenak.

Uste dugu orain inoiz baino gehiago beharrezkoa dela kolektibo autonomoaren ahotsa entzutea, inoiz baino ukituago dagoelako. Horregatik, **Eusko Jaurlaritzari laguntza horiek planifikatu eta ezartzerakoan autonomoen elkarteen ordezkariak sar ditzala exijitzen diogu.** Kale mailan gaudenak gu baikara, eta badakigu nola eman litekeen arnas piska bat egoera zail honetan.

Iñigo Urkullu lehendakariak esan du datozen egunetan laguntza horien baldintzak ezagutaraziko dituztela. "Datozen egun" horiek lehen bailehen izatea espero dugu. **Benetako neurriak berehala hartzen ez badira, eta berehala esaten dugunean ORAIN da, Covid-19ak milaka saltoki eta ostalaritzako negozio txiki eramango ditu aurretik, eta ezin izango dituzte berriro ateak ireki.**

Jarri harremanetan **Aupa Euskadi/Autonomoak Ekintzarako Elkarrekin:**

infoaupaeuskadi@gmail.com

Ainara 685255249 Juncal 669465668